

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
52/2022 TXOSTENA**

Gaia: Izurriteen kontrol zerbitzu kontratuak luzatzea		
Espediente sustatzailea: Zerbitzu saila		
Espediente tramitatzaila: Idazkaritza saila		
Espediente zenbakia: KON_IS_0004 (2020)		
Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria		
Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
Luzatzearen aldeko proposamen teknikoa dago	Bai	2022/09/19ko zerbitzuetako teknikariaren proposamena
Luzapena kontratua burutu orduko planteatu da	Bai	2022/12/03 (1.lotea) eta 2022/11/02 (2.lotea) bukatzen da
Luzapena pleguetan aurreikusi da	Bai	Karatularen eta pleguen 4. ataletan
SPKLko kontratuen gehieneko epea betetzen da	Bai	Urte 1 luzatzen da (luzapenarekin 3 urte)
Organo eskumenduna zuzena da	Bai	Alkatetza
Ondorioa	Oharrak	
Aldeko txostena	Kontuan izan kontratistarentzat luzapena nahitaezkoa izateko kontratuaren iraupena amaitu baino 2 hilabete lehenago aurreabisua egin behar dela. Bat egiten da idazkaritzako AOTak 2022ko irailaren 20an egindako txostenarekin.	

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Izan ere, txosten hau derrigorrezkoa eta ez loteslea da, hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako egunean

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

